



# GREBARI BURUZKO INFORMAZIOA

## **LAUDIO IKASTOLAKO LANGILEEK BAT EGIN DUTE IRAILAREN 15ERAKO GREBA DEIALDIAREKIN**

*Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza arloko sindikatu guztiek, ELA, LAB, STEI-LAS, CCOO eta UGTk, greba deialdia egin dute irailaren 15erako Eusko Jaurlaritzari “Aurrez aurreko hezkuntza itzulera segurua eta adostua” exijitzeko.*

*Laudio Ikastolako langileek greba deialdiarekin bat egitearen alde bozkatu dute.*

*Hortaz, datorren asteartean Ikastolan ez da ohiko funtzionamendua egongo eta ezin izango dira bermatu zuen seme-alaben zaintza egin ahal izateko baldintzak, hare gutxiago bizi dugun pandemia egoeran.*

*Izan ere, gaur gaurkoz Lan eta Justizia Sailak ez du grebarako ezinbesteko zerbitzuak ezartzeko agindurik argitaratu. Azken urteotako greba deialdietan, zuzendaritza eta zerbitzuetako pertsona banarekin osatu ohi dira ezinbesteko zerbitzu horiek. Honek ez du bermatuko taldekako funtzionamendu segururik eta ondorioz egun horretan Ikastolara ikaslerik ez ekartzea gomendatzen dugu.*